



BIRIKLETA

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure elkarteak aurrera egin eta arrakasta izan dezan, baliabideak multzo desberdinetan banatuta daude: fisikoak, materialak ez direnak eta giza baliabideak.

Giza baliabide eta baliabide intelektualei dagokionez, proiektua martxan jarri eta beronen funtzionamendua bermatzeko nahikoa izango dugu taldea osatzen dugun lau kideekin. Lehenengo kideak, komunikazio arloan dituen gaitasunak jarriko ditu proiektuaren zerbitzura, sare sozialen ezagutzaz eta webguneekin duen trebetasunaz baliatuz. Bigarren kideak, diru kontuekin duen abilezia gure administrazio lanetan praktikan jarriko du. Amaitzeko, hirugarren eta laugarren kideen antolaketa gaitasuna ezinbestekoa izango da ekintza desberdinak aurrera eramateko. Bada guztiok amankomunean dugun funtsezko ezaugarri bat: Gizartearen parte garen heinean, gure proiektuaren xede den komunitatearen parte gara.

Baliabide ez-materialei dagokionez, webgunea eta Instagram izango dira garrantzitsuenak; eta honek, domeinua eta hosting zerbitzuaren beharrak dakartza besteak-beste. Zentzu honetan, *Hostgator Starter* plana aukeratuko dugu, urtean 95€ ordainduz.

Baliabide fisikoei dagokionez, bulegoa eta biltegia bilduko dituen espazioa izango da garrantzitsuenetariko bat. Zumaiako Udaren laguntzarekin lortu dugu lokala, gure proiektua aurrera eramateko lan gune bat eskaini baitigu. Azkenik, bulegorako eta biltegirako hainbat baliabide beharko ditugu: bulegoko altzariak, biltegiko apaltea, telefonoa eta material korrontea besteak-beste.